

PARTAIDEAK

Aizpurua Jatetxea
Ametsa Pelota elkarte
Eguzki Goxo abesbatza
Eguzki Txoko elkarte
Enara taberna
Errekalde taberna
Euskaraldia Irura
Gazte Alaiak elkarte
Irura Bizi
Irurako Gazte Asanblada
Irurako Haurreskola
Irurako ikastola
Irurako odol emaileen elkarte
Irurako Udala
Lats dantza taldea
Loatzo musika eskola
Trinkete taberna

OHARRAK

- Covid-19aren ondorioz eta osasun-segurtasuna bermatzeko, emanaldien edukiera mugatuko da.
- Emanaldietara joan ahal izateko, gonbidapena beharko duzu.
- Gonbidapena eskatzeko, Udaleko web orrira (www.irura.eus) edo kultur bulegora (tel: **943 69 26 74**) jo beharko duzu, emanaldia baino astebete lehenago.
- Pertsona bakoitzak, gehienez, 2 gonbidapen eskuratzeko aukera izango du, familia ugariak izan ezik.
- Astelehenetik ostegunera banatuko direnak irurarrentzat bakarrik izango dira. Ostiraletik aurrera, agortu ez direnak edonork eskuratu ahal izango ditu.
- Haurrei zuzendutako emanaldietan, horiek lehentasun osoa izango dute. LH 2tik behera dabilen haurrak euren gurasoetako batekin sartu ahalko dira, betiere, eserleku bat hartuz.
- Edukiera betetzen ez bada, momentuan sartzeko aukera izango da.
- Emanaldietara sartu ahal izateko, unean uneko segurtasun-neurriak jarraitu beharko dituzte pertsona guztiak. Gonbidapena dutenek, ekitaldia hasi baino 15 minutu lehenago eremuaren barruan eserita egon beharko dute, eserleku guztiak beteko ez balira gonbidapenik ez dutenek sartzeko aukera izan dezaten.
- Gonbidatuen izena egiaztatu egingo da.
- Ordurako sartzen ez denak ez du lehentasunik izango, nahiz eta gonbidapena eduki.

NOTA

Toda la información en castellano en www.irura.eus o en la **oficina de cultura**.

irura
AISIALDIRAKO
2020 **GiDA**
IRAILA

XARE
txa-
pel-
keta

2. SAN MIGEL XARE IREKIA
IRURAKO UDALA SARI NAGUSIA
irailaren 5etik urriaren 3ra
AMETSA TRINKETEAN

IRURAKO KULTUR MAHAIA

Iruran kultur eta kirol eragileak baditugu, baina udalaren partetik eragile hauen arteko koordinazioa hobetzeko beharra sumatu dugu: agenda, eskaintza... Orain arte, eragile bakoitza bere bidetik joan da koordinazio alorrean, eta herritarrengana iristeko zailtasunak izan ditu zenbait garaitan.

Herritar bezala, uste osoa dugu garrantzitsua dela kultur nahiz kirol eremuko helburuak zehaztea, hauen inguruan hausnarketa bat egitea eta denon artean partekatze aukera izatea. Izan ere, **helburu nagusi bat konpartitzen dugu: Irura herri biziago bat bihurtzea.**

Azken urte hauetan Jai Batzordearen dinamika hanka motz geratu denaren ustea dugu eta hutsune hauek betetzeko sortu da **Kultur Mahaia**, hein handi batean, **honako helburu hauek asetzeko** asmoarekin:

- Kultur eta kirol alorrean Irurak dituen erronka eta helburuetaz hausnartzeko foro iraunkor eta eraginkor bat bihurtzea, ekitaldi zehatzak antolatzeetik haratago.
- Eragile bakoitzaren autonomiatik egitarau bateratua osatzea, elkarlanean.
- Herritarrari zuzendutako komunikazioa hobetzea, baliabideak optimizatuz.
- Eskaintza anitza antolatzea eta urte osora zabaltzea.
- Euskal kultura bultzatzea.

Kultur Mahaiaren funtzionamendua:

- Hilabete bakoitzeko lehen ostegunean elkartuko da.
- Aisialdi agenda hileroko aterako da, eragile bakoitzak berak antolatzen dituen eskaintzak sartzeko aukerarekin (antolatzailearen izena ipiniko da).
- Agendaren koordinazioa udal teknikariak eramago du.
- Agendarekin batera, bestelako euskarriak erabiliko dira (prentsa, web orria, kartelak, app berria, etab).
- Deialdiak irekiak izango dira, edozein herritarrek parte hartu ahalko du



euskara



castellano



kultur**mahaia**

04/ 20:00 plaza
40 URTE ETA ALDAPAN BEHERA NIEKI!
Txikiren bakarriketa



12/ 18:00 plaza
PROZAK
Malas Compañías antzerki taldearen ikuskizuna



19/ 11:00 frontoia
GINKANA ETA JOKUAK TXIRRINDAKIN HAURRENTZAT
Irura Bizi elkarteak antolatuta



20/ 17:00 plaza edo frontoia
BIZI BIZIKI ZIRKUA
Kiki, Koko eta Moko pailazozen ikuskizuna



26/ 11:00 frontoia
ORIENTAZIO JOKUAK FAMILIEN ARTEAN
Bizibiziki taldeak gidaturik




19:00 plaza edo frontoia
FUNBOX FACTORY



27/ 18:30 plaza
BERTSO SAIOA

Bertsotan: Aitor Mendiluze, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Oihana Iguaran
Gaiak jartzen: Amaia Agirre



29/ 09:00 herrian zehar
DIANA LOATZO MUSIKA ESKOLAKO TXISTULARIEKIN



20:00 plaza
DEMODE QUARTET



KULTUR ETA KIROL IKASTAROAK

ESKAINITZA ABUZTUAK 6TIK AURRERA WEB ORRIALDEAN

IZEN-EMATEA IRAILAREN 7TIK 18RA ONLINE

IKASTAROEN HASIERA URRIAREN SEAN

IRURA XAREA

1919 2020

2. SAN MIGEL XARE IREKIA

IRURAKO UDALA SARI NAGUSIA

AMETSA TRINKETEAN

09/05 - 17:00

1.- Driolet&Moncada / Larronde&Algaranondo
2.- De Paredes&Borteyru / Apeztegia&Sistiage

09/11 - 19:00

1.- Larronde&Algaranondo / Lopeteg&Karrikaburu
2.- Apeztegia&Sistiage / Etxeberri&Funosas

09/19 - 17:00

1.- Lopetegi&Karrikaburu / Driolet&Moncada
2.- Etxeberri&Funosas / De Paredes&Borteyru

09/26 - 17:00

1.- A Multzoko 1.A / B Multzoko 2.A
2.- B Multzoko 1.A / A Multzoko 2.A

10/03 - 17:00

1.- Irurako nesken xare partida
2.- FINALA

Irurako udala